

BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA. PPK eta PSOEek areagotu egin zituzten atzo Batasuna legez kanpo uzteko ekimena babestuko ez duten alderdien kontrako kritikak. PSOEko idazkari nagusiak kontraesanean egotea egotzi zien.

Batasuna legez kanpo uztea babesten ez dutenek iritzia aldatuko dutela dio Zapaterok

CiU abstenitu egingo da datorren astelehenean Diputazio Iraunkorraren bileran



RAFAEL DIEZ / EFE

Jose Luis Rodriguez Zapatero PSOEko idazkari nagusiak Malagako ferian hitz egin zuen Batasuna legez kanporatzeari buruz.

aurrerapausoa» izango dela ziurtatu zuen.

PPren bereizketa

Rafael Hernando PPko diputatuak CiU eta EAJren jarrerak bereizi nahi izan zituen atzo, bien artean «zuritik beltzera doan aldea» dagoela esanez. Abstentzioa «beste aldera» begiratzearekin parekatu zuen PPko diputatuak, baina kontrako botoa «HBren abokatu gisa» jardutearekin. PPren ustez, EAJk «hutsegite historiko larria» egin du Batasuna legez kanpo uzteari kontrako botoa iragarrita. Hernandoren esanetan, EAJk bi helburu lortu nahi ditu jarrera horrekin: batetik, «ETAren helburu ez bihurtzen saiatzea», eta, bestetik, Batasunaren «boto multzo bat oinordetzea». Lehenengoari «koldarkeria» iritzi zion PPko burukideak, eta bigarrenari «lotsagabekeria». «EAJri berriro esan nahi diot jarrera aldatu eta iritzia aldatzeko aukera bat duela, zeren eta euskal gizarteak ez baitu onartuko eta jasango EAJrena bezalako erabaki larririk», esan zuen Hernandok.

CiU abstenitu egingo da astelehenean

Convergencia i Unio abstenitu egingo da datorren astelehenean Kongresuko Diputazio Iraunkorrean, Batasuna legez kanpo uzteko eskaerari buruzko osoko bilkurara deitzeko erabakia hartzeko orduan. Kongresuko osoko bilkuran, hilaren 26an, eman beharreko botoa datorren astelehenean erabakiko du CiUko Batzorde Eragile Nazionalak, Josep Antoni Duranek eta Xavier Triasek atzo arratsaldean azaldu zuten. «Ez gaude ados Parlamentua erabiltzearekin, ez eta iritzia publikoaren aurrean Parlatuak epaileak ordezkatzearekin ere», esan zuen Triasek. Duran eta Triasek nabarmendu zuten CiUk eutsi egin diola Kongresuan legearen eztabaidan izan zuen jarrerari, «guztien presioen gainetik».

CiUren erabakiaren berri izan ondoren, Javier Arenas PPko idazkari nagusia oso kritikiko agertu zen koalizio katalanarekin. «CiUren botoemaile gehienek ez lukete ulertuko terrora babesten duen alderdi politiko bortitz bat legez kanpo uztea dakarren bozketan abstentitzea», esan zuen Arenasek. «Alderdi demokratikoez ez badute babesten, urteetan damutuko zaie», gehitu zuen.

ESPAINIAKO KONGRESUA

IUK Justizia Ministerioaren txosten juridikoa eskatu du

Espainiako Justizia Ministerioako Teknikari Taldeak Batasunaren legez kanporatzeari buruz eginiko txostena eskuratu nahi du IUK. Datorren astelehenean Kongresuko Diputazio Iraunkorra bilduko da osoko bilkura berezira deitzeko, hain zuzen, Batasuna legez kanporatzeko prozesua abia dezan eskatzeko Espainiako Gobernuari. IUren ustez, Diputazio Iraunkorrek osoko bilkurara deitu baino lehen, beharrezkoa litzateke diputatuek aipatutako txosten juridikoaren berri izatea. Horregatik, txostena asteleheneko bilera baino lehenago jasotzeko eskaera ofiziala aurkeztu zuen IUren talde parlamentarioak Kongresuko erroldan. «Ezin dugu ahaztu Kongresuaren esku-hartze prozedura berezi bat dela, non informazioa esku artean izatea funtsezkoa den osoko bilkuraren deialdia justifikatzen dituzten supostuak aztertze», argudiatu du IUK. Horrez gain, Justizia batzordeari txostenari buruzko iritzia ematea dagokiola gogoratu du IUK.

Agentziak | MALAGA

PSOEek eta PPK areagotu egin zuten atzo presio dialektikoa Batasuna legez kanporatzeko eskaerari sostengurik ez emateko asmoa dutenen inguruan, batik bat EAJ, CiU eta IUren inguruan. PSOEren aldetik, Jose Luis Rodriguez Zapatero idazkari nagusiak berak hitz egin zuen, eta, PPren aldetik, lehenik Rafael Hernando Komunikazio koordinatzaileak, eta gero Javier Arenas idazkari nagusiak.

Rodriguez Zapaterok alderdi horiek kontraesan handia dutela nabarmendu zuen, alde batetik, Batasuna ETAren menpekotzat jo eta, bestetik, lege kanporatzea babesten ez dutelako. «Ez ditut ulertzen Batasuna ETAren txotxongilo edo tresna dela esaten dutenak eta

hura legez kanpo uztea komenigarri ikusten ez dutenak», adierazi zuen PSOEko idazkari nagusiak. Jarrera horri «kontraesan intelektual» iritzi zion, indar politiko bakoitzak egiten duena errespetatuko duela ziurtatu bazuen ere. «Ezin du inork ulertu ETAren txotxongilo edo tresna legala izaten uztea», gaineratu zuen Rodriguez Zapaterok. Halaber, orain zalantzan daudenek edo Batasunaren kontrako ekimena sostengatuko ez dutenak iritzia aldatuko dutelakoan dago Jose Luis Rodriguez Zapatero. «Zigorgabetasuna amaitzeko tresna egokia» izango dela adierazi zuen, bere ustea argudiatzeko asmoz. Rodriguez Zapaterok onartu zuen Alderdi Legea ez dela «panazea» izango, baina «terroismoaren kontrako borrokan